


GALTXAGORRIAK



Kondaira irakurri baino lehen, lotu:

- | | |
|-----------------|--|
| 1. orratzontzi | () oso denbora gutxian; “en un santiamen” |
| 2. behar batzuk | () guztiz nekatu; “hartarse” |
| 3. eskakizun | () gari-ale lodiak eta finak bereizteko tresna; “cedazo, criba” |
| 4. amen batean | () lan batzuk |
| 5. nazkatu | () jostorrazak gordetzeko ontzia |
| 6. galbahe | () eskatzen dena; “petición” |

Bizkaiko Kortezubi herrian kontatzen denez, gizon batek galtxagorri batzuk erosi omen zituen **behar batzuk** egiteko. **Orratzontzia** ireki eta lan bat egiteko agindu zien, eta haiek berehala egin zuten. Gero beste lan bat egiteko agindu zien, eta baita egin ere hauek. Hirugarren **eskakizun** bat ere eskatu eta galtxagorriek **amen batean** bete zuten. Orduan nagusiari galdetu zioten zer gehiago egingo zuten.

Nagusiak, orduan, zer agindu ez zekienez eta galtxagorriekin nazkatzen hasita zegoenez, ezinezko lan bat eskatzea pentsatu zuen. Horrela, **galbahe** batean ura ekartzeko eskatu zien. Lan hura ezin izan zutenez burutu, betirako alde egin zuten izaki prakagorridunek.